

“EMAITZAK LAN ON BATEN ONDORIO DIRA BETI”



Aita Larramendi Ikastola | Gorka Matute | Xamaxa | Batxilergoa

Gorka Matutek zuzenduriko beste talde batek, Xamaxak, bigarren postua lortu du, Batxilergoan, Aita Larramendi Ikastolarentzat. Hona hemen Gorkaren eratzunak:

Kosmodiseak aurrera egin ahala parte-hartze handiagoa izan dute ikasleek, edo, alderantziz, hasieran gogo handiz hasi eta ondoren hoztu egin dira?

Ikasturtea aurrera joan den heinean gogo ere handitu zaie. Halere, bukaera partera, beraien ikasturte amaierarekin bat egiten duenez, kosmodiseari eskainitako denbora eta gogo ere murriztu egin da, kurtso amaierarekin beste lehentasun batzuk agertzen dira eta.

Lehiaketaren egiturak ikasturtearen jarduna oztopatzen du edo elkarren osagarri dira?

Gure kasuan ez da oztopoa izan. Arlo batean txertaturik izan dugu eta arlo horren antolaketan ikasturte hasieratik eskaini beharreko denbora planifikatu dugu.

Sari baten bidez aitortuak izateko aukerak motibatzen al ditu ikasleak?

Bai noski. Saria egoteak eta ondo sailkatuak egoteak beti izaten dira motibazioaren pizgarri.

Eta irakasleak? Ikastetxea?

Gure kasuan ikasleak gustura aritzea da gehien motibatzen gaituenak, sariak baino askoz gehiago. Askotan horrek ere lotura bat izaten du, ikasleak gustura aritzen direnean, motibatuak daudenean, sariak lortzen dituzte, baina lanaren ondorioz lortzen dira emaitzak.

Zein izan da Kosmodisean bizitutako esperientziaren onena?

Ikasleen arteko harremanak sustatu eta sendotzeko aukera ematen diela, hala nola, beraiek erabakitako proiektu bat aurrera eramateko aukera ere.

Zailtasun handienak noiz eta zergatik sortu dira?

Taldean sortzen diren arazoek kudeaketan. Talde honetan modu egokian kudeatu dituzte, amaieran emaitza bikaina lortuz.

Edizio hau eta aurrekoak ikusi ondoren, ekimen honetan parte hartzearen esperientziak zein ondorio ekarri dizkie ikasleei?

Ikasleei talde lanean ondo funtzionatuta emaitza egokiak lortu daitezkeela erakusten die. Gainera, IKTak modu egokian erabiltzeko aukera paregabea ematen die eta lehen aipatu bezala, beraien ekintzaile puntua ateratzeko aukera ere eskaintzen die.

Eta irakasleei?

Nire kasuan IKTak modu egokian erabiltzeko aukera polita eskaintzen dit ikasleekin proiektu errealak aurrera eramanez eta beste ikastetxeetako kideekin partekatuz.

Zortzigarren Kosmodisean parte hartzeko prest zaudete?

Bai, aukera irekiko balitz berriro parte hartuko genuke.

Ekimena hobetzeko ekarpenik egin nahi duzue?

Ezer berezirik ez, hurrengo ikasturtean ere martxan jarraitzea eta ikasleei erronka berriei aurre egiteko aukera eskaintzea.